

2 JENDEAREN AHOTSAK LAS VOCES DE LA GENTE

Programa honek, profesional askoren lanari eta gazte eta familien partaidetzari esker, aurrera segitzen du.

Ezinezkoa da denboran zehar parte hartu duten guztien ahotsa agiri honetan jasotzea.

Jaso ahal izan ditugun ahotsak gurekin lan estuan ari diren profesionalen sentimendu eta iritzien erakusgarri bat dira, eta gurekin uneak eta esperientziak partekatu dituzten gazte eta familiena.

Hemen lekukotasun asko bildu dugu, asko baitira eskaini dituztenak, hala nola irakasleak, tutoreak, zuzendariak, praktikan ari diren hezitzaileak, beste baliabide batzuetako hezitzaileak, gazteak, amak, beste esparru batzuetako hezitzaileak, elkartekide bat, are zentroaren harreran lan egiten duen pertsona bera ere.

Eskerrik asko denoi, egindako ekarpenengatik.

Este programa sigue en marcha gracias al trabajo de muchos profesionales y a la participación de jóvenes y familias.

Es imposible reflejar en este documento las voces de todos aquellos que han tomado parte a lo largo de este tiempo.

Las voces que hemos podido recoger son una muestra del sentir y del parecer de profesionales con los que trabajamos codo con codo y de jóvenes y familiares que han compartido momentos, experiencias, con nosotros.

Aparecen testimonios de profesores, tutores, directores, educadores en prácticas, educadores de otros recursos, jóvenes, madres, educadores de otros ámbitos, un compañero de la Asociación, hasta de la persona que trabaja en la recepción del centro.

Gracias a todos por sus aportaciones.

Ikastetxeak

LEIZARAN INSTITUTUA

Dirudienez, gure nerabe eta gazteen portaeran eragina duen kulturaren %80 kalean bereganatzen dute. Interneten irakurri dut, antzadenez gaur egun denontzat eskola nagusi den horretan. Benetan horrela bada, honetantxe egin dugu kitto!

Lehengo garaian bai. Egun osoa kalean ematen genuen, harrika ikasten elkarbizitzen. Gaur egun, ordea, gauzak aldatu egin dira, eta kalea arriskuz beterik dago. Garai hartan, traumatizatzen ginen arren, ez ginen horretaz jabetzen (are gutxiago gure gurasoak) eta "aurrera" egiten genuen, kulturaren %80 hori ahal genuen moduan eskuratzuz.

Gaur egun haurrak benetan traumatizatzen dira, psikologoaren ziurtagiria eta guzti, eta hori beste kontu bat da.

Hasiera hau ezin hobeto datorkit, kalean bertan lan egiten duen pertsona talde bat Andoainen egiten ari denari buruz idazteko; izan ere, pertsona talde hori ahalegindu egiten da aisialdi hori, norbanakook kultura geureganatzeko unean hain garrantzitsua den aisialdi hori betean hezitzailea izan dadin gure nerabeentzat.

Hamar urte dira bilera orduak, informazioa, kezka, asmoak... partekatzen hasi ginenetik. Guk Leizaran Institutuan egiten dugun lanetik, eta Kaleko Hezitzaileek beretik.

Los centros escolares

INSTITUTO LEIZARAN

Parece ser que el 80% de la cultura que incide en el comportamiento de nuestros adolescentes y jóvenes se adquiere en la calle. Lo he leído en internet que es, hoy por hoy, donde más aprendemos todos. Si es así, apaga y vámonos.



Antiguamente, sí. Nos pasábamos el día entero en la calle aprendiendo a pedradas a convivir. Pero hoy día, las cosas han cambiado y la calle está llena de peligros. En aquella época, aunque nos traumatizáramos, como no nos dábamos cuenta (y nuestros padres menos) pues tirábamos "palante" adquiriendo ese 80% de cultura como podíamos.

Hoy día los niños se traumatizan de verdad, con certificado del psicólogo, y esto ya es otra cosa.

Y este encabezamiento viene al hilo para escribir estas líneas sobre la labor que en Andoain viene desarrollando un grupo de personas que trabaja a pie de calle, intentando que ese tiempo libre, que tanta importancia tiene en la adquisición de cultura, resulte al final realmente educativo para nuestros adolescentes.

Hace diez años empezamos a compartir horas de reuniones, información, inquietudes, planes... Nosotros desde nuestro trabajo en el Instituto Leizaran y los Educadores de Calle desde el suyo.

Desde la primera reunión en la que conocí a Pili y Carlos, tan jovencitos, (casi como ahora) me di cuenta





Pili eta Carlos ezagutu nituen lehenbiziko bileratik, hain ziren gazteak (orain bezala ia-ia), kon-turatu nintzen zein eginkizun garrantzitsua zuten. Gure ikasleetako asko ezagutzen zituzten, ondo asko zekiten nolako interesak zituzten, eta nolako lagunak, eta nerabeetako gehienek zertan eman asmatzen ez duten aisialdiko ordu horietan zertan aritzen ziren.

Eta ongi jakinik kalea “arriskuz” beterik dagoela eta nerabeek ez dituztela soilik “arrisku” horiek topatzen, baizik eta, batzuetan, baita propio bilatzen ere, iruditzen zitzaidan hezitzaile hauen lana ezinbesteko osagarri izango zela gure ikasleen hezkuntza prozesuan.

Guk, institututik, gure gazteei buruan sartu behar dizkiegun ikasgai ezin astunagoez gain, ahalegina egiten dugu balore pertsonal, etiko, zibiko, ... batzuk beregana ditzaten hezten, balore horiek lagungarri gertatuko zaizkielako espazio horretan, balore horiek bereganatu ote dituzten hain nabarmen ikusten den espazio horretan bizi izateko.

Hezitzaile hauek hortxe ditugu uneoro, espazio ez-formaletan, nerabeek berek aukeratzen dituzten tes-tuinguru ez-instituzionaletan lanean jo eta ke.

Eta hortxe datza, nire iritziz, hezteko forma honen benetako arrakasta: gure ikasleak behartuta daude institutura etortzeko, eta etortzen dira; alabaina, libre dira kaleko programara joan edo ez joateko. Eta aukera hori egiten dute, baliabideak jartzen dituztelako, giza baliabideak batik bat, motibatuzko; eta hori sekulako meritua da.

Era guztietako teknikak erabiliz, baina beti-beti harreman pertsonalari lehentasuna emanaz gune

de la importancia de su trabajo. Conocían a muchos de nuestros alumnos, sabían de sus intereses, sus amigos, lo que hacían en esas horas de tiempo libre que la mayoría de los adolescentes no saben cómo utilizar.

Y sabiendo que la calle está llena de “peligros” y que los adolescentes no sólo encuentran dichos “peligros”, sino que, a veces, hasta los buscan, me parecía que la labor de estos educadores iba a ser un complemento imprescindible para la educación de nuestros alumnos.

Nosotros, desde el instituto, a parte de las asignaturas insufribles que debemos meter en las cabezas de nuestros chavales, intentamos educarlos en la adquisición de unos valores que les ayuden a convivir en ese espacio donde, al fin y al cabo, tan bien se ven los resultados en la asimilación de dichos valores: personales, éticos, cívicos, etc.

Estos educadores, están al quite trabajando en espacios no formales, en contextos no institucionales que los adolescentes eligen libremente.

Y es ahí donde radica, a mi entender, el verdadero éxito de esta forma de educar: nuestros alumnos están obligados a venir al instituto y vienen; sin embargo, son libres de acudir o no al programa de calle. Lo eligen porque alguien pone los medios, sobre todo humanos, para motivarles y eso tiene un mérito impagable.

Con la utilización de múltiples técnicas, pero anteponiendo la relación personal para crear espacios atractivos, consiguen que esas horas, donde ni la familia ni la escuela están presentes, se conviertan en algo que los niños valoran y que les sirve en su proceso educativo.

erakargarriak sortzeko unean, lortu egiten dute ordu horiek, familia eta eskola presente ez dauden ordu horiek, haurrek baloratzen eta hezte prozesuan baliagarri izango zaien zerbait izan daitezten.

Horregatik, uste dut beti egon dela, hasieratik beretik eta lanari ekin ziotenetik, "filling" esaten dioten hori. Eta honek bidea ematen digu edozein unetan hots egin eta elkarri informazioa eskatzeko behar beste konfiantza izateko, edota laguntza eskatzeko, maiz sortzen diren arazo horietako bat sortzen denean.

Askotan hots egin behar izan diet hezitzaileei, eta beti erantzun positiboa aurkitu dut haiengan, laguntzeko prest uneoro, eskertzeko kontua, inolaz ere, bizitzea egokitu zaizkigun garaiotan. Elkarrekin izan gara bilertan institutuan, udaletxean, Foru Aldundian, beti gure nerabeen arazoei hobeto heltzea ahalbidetuko diguten laneko metodoak aurkitzeko ahaleginean, beti nerabeei lagungarri izango zaizkien bideak aurkitu nahirik.

Eta lan egin behar izan dugu, batzuetan, arazoek gaina hartua zieten haur eta nerabeekin, eta beste batzuetan norbaitek kasu egingo zien espazioa aurkitzen ez zuten hurrekin, hau da, arazoak direnak direla entzuteko prest dagoen norbait baden espazioa aurkitzen ez zutenekin, pazientziatz, are kariñoz ere, profesional hauek beti horrelaxe jarduten ikusi baitituz.

Sarritan etorri zaizkigu haurrak, zoriotsu kontatuz aurreko arratsaldean arrantzan izan direla Carlosek (lupia arrantzale aparta baita, bestenaz ere), edota perretxikotan edo eskalada edo arku-tiroa egiten aritu direla, edo beste edozertan; eta ondo asko dakigu zein zail gertatzen den haurrengan ilusio hori piztea.



Así que desde el principio, y una vez puestos a trabajar, pienso que siempre ha habido eso que se llama "filling" y que sirve para tener la suficiente confianza para llamarnos en cualquier momento en demanda de información o ayuda cuando surgía algún problema de esos que surgen a menudo.



Muchas veces he tenido que llamar a los educadores y siempre he encontrado una respuesta positiva y colaboradora por su parte, cosa que es de agradecer en estos tiempos que corren. Hemos estado juntos en reuniones en el instituto, en el Ayuntamiento, en la Diputación, siempre interesados en buscar métodos de trabajo que posibiliten atender mejor los problemas de nuestros adolescentes e intentando buscar vías que les sirvieran de ayuda.

Y hemos tenido que trabajar, a veces, con niños y adolescentes abrumados por los problemas, niños que no encontraban el espacio donde alguien les hiciera caso, donde alguien les pasara una mano por el hombro para hacerles comprender que, entre tanto problema, siempre hay alguien que te puede escuchar una y mil veces, con paciencia y hasta con cariño, como he visto actuar siempre a estos profesionales.

Cuantas veces han venido los niños contándonos felices que la tarde anterior habían estado pescando con Carlos (que además es buen pescador de Lubinas) o cogiendo perretxikos o haciendo escalada o tiro con arco o cualquier otra actividad sabiendo nosotros lo difícil que resulta, a menudo, ilusionarlos.

Eso es lo esencial: saber entender a cada chaval, comprender que cada uno es diferente, que no todo sirve para todos y que a cada cual, después de





Horixe da funtsezkoa: gazte bakoitza ulertzen jakitea, guztiak desberdinak direla konprenitzea, eta denak denentzat ez duela balio eta bakoitzari, nolakoa den ulertu ondoren, behar duena modu natural, adiskidetsu eta zuzen batez eman behar zaiola ikustea.

Nerabeekin enpatia hori lortzea ez baita gauza samurra... Era guztietako teknikak eta lanabesak probatu behar dira, hurbiltzeko metodo desberdinak, baina, azken batean, lehenasuna pertsona da, eta haurrak berehala jabetzen dira horretaz. Zuk, nahi baduzu, pedagogi sistema miragarriak erabil ditzakezu, baina pertsonarengan konfiantzarik sortu ezean, jai dago.

Zenbat aldiz esan ote diet nik Pili eta Carlosi zerua ongi merezia dutela, laguntza behar zuten nerabeekin hitz egin eta gero, eta ikusiz nola aritzen diren, nola inplikatzan diren, arratsaldea joan arratsaldea etorri, irakasleek eraginik ez duten aisialdiaren esparruan.

Ikasturte hauetan zehar, Kaleko Hezitzaileekin batera lanaren garapena ikusi dugu: ikasturtearen hasieran lehen bilera, Institutura iritsitako ikasle berriei buruz hitz egiteko eta aurreko urteetakoak nola hasi diren ikusteko. Hiruhileko bilerak, bai eskolaumeekin bai irakasleekin, adingabeen prozesuak koordinatzeko eta ebaluatzeko. Koadrilekin egiten zituzten ekintza iradokitzaile eta askotarikoen berri ematen ziguten, eta beti iruditu zait hondorik gabeko zulo baten antzekoa, hau da, posible da bertan eskolako lanak egitea, meriendak antolatzea, jolasak, inauterietako festak, lehiaketa batzuetan parte hartzea, irteerak egitea... Ez dute, ez, irudimen makala!

Eta, bat-batean, Gabonak iritsi eta neurri guztiak gaingiduz Gazte Astea antolatzen dute, eta denak aztoratuta ditugu horretan, holakoan edo halakoan parte hartu behar dutela eta.

entenderle, hay que darle lo que necesita, de una manera natural, amigable y justa.

Tener esa empatía con los adolescentes no es cosa fácil... Hay que probar técnicas y herramientas diversas, métodos de acercamiento distintos, pero en el fondo lo que prima es la persona y eso los niños lo captan a la perfección. Ya te puedes empeñar en utilizar sistemas pedagógicos milagrosos que como no confíen en la persona, no hay nada que hacer.

Cuántas veces, les habré dicho yo a Pili y a Carlos "vosotros ya os habéis ganado el cielo" después de haber hablado con adolescentes que necesitaban ayuda y viendo como actúan, cómo se implican, tarde tras tarde, en el ámbito del tiempo libre en que los profesores no pueden incidir.

A lo largo de esos cursos escolares hemos visto el desarrollo del trabajo junto con los Educadores de Calle: una primera cita a comienzos de curso para hablar de los alumnos que llegan nuevos al Instituto y hablar de cómo empiezan los de otros años. Reuniones trimestrales tanto con escolares como con profesores para coordinar y evaluar los procesos de los menores. Nos informaban de las sugerentes y variadas actividades que realizaban con las cuadrillas, siempre me ha parecido algo así como un pozo sin fondo, es decir que lo mismo pueden hacerse allí los deberes del cole, que realizan meriendas, juegos, fiestas de carnaval, participan en concursos, hacen salidas.... ¡Vaya imaginación!

Y, de repente, llega la Navidad, echan la casa por la ventana y organizan la Gazte Astea y ya los tenemos a todos revueltos, contándonos que van a participar en esta o aquella actividad.



Eta kaleko hezitzaileei buruzko gauzak kontatzen dituzten bakarrak ez dira ikasleak, ez horixe. Gurasoekin seme-alabei buruz hitz egiteko ordua jartzen duzunean, azaltzen digute hezitzaileen bulegoan izan direla eta izugarri pozik daudela beren seme-alabak hara joaten direlako. Nik neuk ere gomendatu izan diet hezitzaileekin hitz egitea, arazoren bati heltzeko garai- an ahalegina denon artean egiteko. Oso garrantzitsua iruditzen zait familiak, eskolak eta adingabeekin dau- den hezitzaileek halako koherentzia bat mantentzea beren jardueretan. Eta ongi funtzionatzen du!

Gure gazteek, bere portaera eta heziketan eragina izango duten kulturaren %80 kalean bereganatzen duten horiek, normalean sentitzen dutelarik gurasoek ez dituztela konprenitzen, eta irakasleok, berriz, txapa- emaille hutsak garela pentsatuz, esku-eskura dituzte langile horiek, kalean bertan baitituzte, hitz egiteko, entzunak izateko, dauzkaten zailtasunetan lagun izateko prest uneoro... beste batzuek, gure espazio insti- tuzionalduetatik, ez baitugu horrelakorik lortzen.

Kalean gauzarik onenak aurki ditzakegu, eta txarrenak noski, eta gure nerabeek horrekin guztiarekin bizi izate- ten ikasi behar dute ezinbestean. Eta gure eginkizuna bereizten irakastea da, hau da, **PERTSONA GISA OSATZEN** lagunduko diena eta kaltegarria zaielako saihesten saiatu behar dutena bereizten.

Horretan ari gara guztiok, gurasoak, irakasleak, he- zitzaileak eta gizarte laguntzaileak... Eta nik beti gauza bera esaten dut: zorteko dugu Andoain, kaleko programa hau edukitzeagatik!

¡Chapeau!

Antxon.

Y no sólo nuestros alumnos cuentan cosas de los Educadores de Calle. Cuando citas a los padres para hablar de sus hijos, nos comentan que han estado hablando en el despacho de los educadores y que están encantados de que sus hijos acudan allí. Yo mismo he recomendado que acudan a hablar con ellos, para intentar, entre todos, abordar algún problema. Me parece importante que la familia, la escuela y los educadores que están con los menores tengan una coherencia en las actuaciones. ¡Y la cosa funciona!



Nuestros jóvenes que adquieren ese 80% de la cultura que incidirá en su comportamiento y educación saben o sienten que, aparte de sus padres que generalmente sienten que no les entienden, y los profesores que les damos la chapa, cuentan con estos trabajadores que a pie de calle, están siempre dispuestos a darles la oportunidad de hablar, de escucharles, de ayudarles con sus dificultades... algo que otros, desde nuestro espacio institucionalizado, no conseguimos.

En la calle podemos hallar lo mejor y lo peor y nues- tros adolescentes no tienen más remedio que convivir con ello. Nuestra obligación es enseñarles a distinguir lo que les va a **FORMAR COMO PERSONAS** y lo que tienen que procurar evitar porque no les ayuda.

En eso estamos todos, padres, profesores, educado- res y trabajadores sociales...Y yo siempre repito: ¡Qué suerte tiene Andoain con tener este programa de calle!

¡Chapeau!

Antxon.





ONDARRETA IKASTETXEA

Ondarreta ikastetxe publikoak, oso hitz gutxitan, azaldu egin nahi du kaleko hezitzaileen taldearekin izan duen harremana. Kaleko hezitzaileen zerbitzua herri osoan zegoen hutsune larria estaltzeko sortu zen.

Hasieratik beretik lanari ekin zioten, lan-ildo zehatz bati jarraiki, zerbitzuen arteko koordinazioa baitzen. Hauxe izan da urte hauetako guztietako lanaren ardatz nagusia.

Lehenbiziko urratsak iritsi zirenean askorentzat zerbitzu ezezaguna bazen ere, berehala egin ziren eza-gun eskolako gurasoen artean.

Gure aldetik, eskolan ditugun ikasleen adinak kontuan hartuta, sarritan erabiltzen dugun zerbitzu bat da.

Lehen aipatu dudan bezala, zerbitzu hau erabiltzeak koordinatzea eskatzen du, ez soilik ikasleak bertara bideratzeko, baizik eta honek berekin dakarren geroko jarraipena ere eginez. Koordinazioa kaleko hezitzaileen, Gizarte Zerbitzuen, eskolaren, gurasoen eta beste zenbaiten artekoa da. Kasu batzuetan, gurasoak berak izaten dira kaleko hezitzaileengana jotzen dutenak, seme-alabentzako laguntza-modu bat delako.

Zerbitzuaren eskaintza ere oso aberasgarria iruditzen zaigu, zeren eta gazte askorentzat oso topaleku garrantzitsua baita. Kaleko hezitzaileek lagundu egiten diete aisialdiaz erreferentziako talde batean gozaten. Adin bereko neska-mutilek aukera dute aisialdiaz gozatzeko, gizartean bere burua kokatu eta bertan

ONDARRETA IKASTETXEA

El colegio público Ondarreta quisiera expresar en pocas palabras la relación que ha tenido con el equipo de Educadores de calle. El servicio de los Educadores de calle fue creado para cubrir el gran vacío que había a nivel de todo el pueblo.

Desde un principio se pusieron manos a la obra, siguiendo una concreta línea de trabajo: la coordinación entre los servicios. Este ha sido el eje esencial del trabajo de todos estos años.

Si bien cuando comenzaron a darse los primeros pasos era un servicio desconocido para muchos, pronto se dieron a conocer entre los padres/madres del colegio.

Por nuestra parte, teniendo en cuenta las edades de los alumnos que tenemos escolarizados, es un servicio que utilizamos muy a menudo.

Como he citado anteriormente el uso del servicio conlleva el coordinarse; no sólo derivando a los alumnos a él, sino haciendo el seguimiento posterior también. La coordinación se da entre Educadores de calle, Servicios Sociales, Colegio, Padres etc... En algunos casos son los padres directamente los que acuden a los Educadores de calle pues es un modo de ayuda para sus hij@s.

Nos parece muy enriquecedora la oferta del servicio; pues para muchos jóvenes es un lugar de encuentro muy importante. Los Educadores de calle les ayudan a disfrutar el ocio en un grupo de referencia. Niños y

toki bat aurkitzeko eta, jakina, ongi pasatzeko. Eta guk, koordinazioaren bidez, jarraipena egiten diegu, zeharka bada ere, ezen espazio hori gure lan esparrutik kanpo dago.

Gauzak horrela, ikusten dugu egiten duten lana oso garrantzitsua dela, eta espero dugu orain arte bezala aurrerantzean ere jarraitzea, gazte askoren onerako izango da eta. BEJONDAIZUELA, ETA ORAIN ARTE BEZALA JARRAITU!!

LA SALLE BERROZPE

Duela hamar urte, La Salle Berrozpen udalaren dei bat hartu genuen, bilera batean parte hartzeko. Bilera horretan proiektu aitzindari bat aurkeztu behar ziguten, arrisku egoeran zeuden herriko gazteekin aisialdiko jarduerak eta ekintzak antolatuz lan egiteko proiektu bat alegia.

Programa honen bidez Kale Hezitzailearen figura eman ziguten aditzera. Hasieran Carlos Arguilea zen figura hori, eta gai izan zen gazteekin kalean lan egiteko proiektu hau abian jartzeko zuen ilusioa bertan elkartu ginen eskola guztiei helarazteko.

Lehen une horietan hainbat zalantza sortu bazen ere, eta kezka ere ugari programa honek aurrerantzean eman zezakeenaren inguruan, urteetan zehar finkatuz joan da, eta erakutsi du Andoainek behar handia zuela, arazo mota honi erantzuna emateko.

Ikastetxetik lan egin dugu kaleko hezitzaile taldearekin eskatu digutenean eta, gure iritziz, gure ikastetxeko ikasleentzat, zerbitzu hori behar izan

niñas de la misma edad tienen la posibilidad de disfrutar del tiempo libre, situarse y encontrar un lugar en la sociedad y de pasarlo bien. Y nosotros, les hacemos un seguimiento, aunque indirecto, sobre un espacio que está fuera de nuestro ámbito de trabajo a través de las coordinaciones.

De este modo, valoramos que el trabajo que efectúan es muy importante y deseamos que sigan tanto tiempo como hasta ahora para beneficio de muchos jóvenes. ANIMO Y SEGUID TRABAJANDO DURO!!



LA SALLE BERROZPE


Hace diez años, en La Salle Berrozpe recibimos una convocatoria del ayuntamiento para acudir a una reunión en la que se nos iba a presentar un proyecto pionero para trabajar con jóvenes del pueblo en situación de riesgo, organizando actividades de tiempo libre.

A través de este programa se nos dio a conocer la figura del Educador de Calle en un principio personalizada en Carlos Arguilea que fue capaz de transmitir a todos los centros escolares que asistimos a esa reunión su ilusión por poner en marcha este proyecto de trabajo con los jóvenes a pie de calle.

Aunque en esos primeros momentos se plantearon dudas y cierta incertidumbre sobre el futuro de este programa, a lo largo de los años se ha ido consolidando y demostrando que Andoain necesitaba que se diera respuesta a este tipo de problemática.


Desde el Centro hemos colaborado con el equipo de Educadores de Calle cuando nos lo han solicitado, y





dutenentzat, onuragarriak izan dira aisialdiko ekintzak; are gehiago, babestuago sentitu ahal izan dira gizartera moldatzeko bide horretan.

Gaur egun ikastetxetik antzematen dugu zerbitzu hau finkatuz joan dela, eta kaleko hezitzaileekiko harremana arinagoa eta hurbilagoa dela, eta hau guztia gazteen eta herriaren beraren onerako da, inolako zalantzarik gabe. La Salle Berrozpe Ikastetxetik bultzatu egin nahi zaituztegu lan ildo horretan aurrera segi dezazuen. Ea bada, gutxienez beste hamar urte egiten dituzuen!



AITA MANUEL LARRAMENDI IKASTOLA

Gogoan dut nola, duela 10-11 urte, udaletxean biler bat izan zen, Gizarte Zerbitzuen Departamentuak deituta, nerabeei zuzendutako zerbitzu bat abian jarri behar zutela azaltzeko; zerbitzu honek Gipuzkoako Osabidezko Hezkuntzaren Kontsultazioaren babesa ere bazuen. Ez genekien, ordea, zer izango zen hura, eta halako behar garbirik ere ez genuen antzematen esparru honetan, baina gure ikasleak, hazi ahala, horrelako baten beharrez izan zitezkeela pentsatu genuen. Denbora igarota ikusi dugu gure ikasleetako askok hartu-emanak izan dituztela kaleko hezitzaileekin, eta programa horretan parte hartu dutela.

Harreman hau, batzuetan, oso adierazgarria izan da, batez ere neurri batean behar bereziak zituzten gazteen kasuan. Hezitzaileek halako "tutore" lan bat burutu dute egiaz adingabeekin, eta lan horrek

consideramos que alumnos del Centro que han precisado de este servicio, se han beneficiado de las actividades de tiempo libre y se han podido sentir más acompañados en su adaptación social.

Actualmente desde el Centro percibimos que este servicio se ha ido consolidando, la relación con los Educadores de Calle es más fluida y cercana y todo ello revierte en beneficio de los jóvenes y del propio pueblo. Desde La Salle Berrozpe Ikastetxea os animamos a seguir en esta línea de trabajo. Que cumpláis, por lo menos, otros diez años!

AITA MANUEL LARRAMENDI IKASTOLA

Recuerdo cuando hace 10-11 años se llevó a cabo en el ayuntamiento una reunión convocada por el departamento de servicios sociales, donde nos explicaron que se iba a poner en marcha un servicio dirigido a los adolescentes con el respaldo del Consorcio de educación compensatoria de Gipuzkoa. No sabíamos muy bien en qué iba a consistir ni veíamos una necesidad muy clara en este ámbito, pero pensábamos que según fueran creciendo nuestros alumnos podrían necesitarlo. Con el tiempo hemos visto que muchos de nuestros alumnos han tenido relación con los Educadores de Calle y han participado en el programa.

Esta relación ha sido en ocasiones muy significativa, sobre todo con jóvenes con necesidades de alguna forma especiales. Los educadores han llevado de alguna manera prácticamente una "tutorización" del menor y eso ha posibilitado un proceso. Cuando esto ha sucedido la relación de la escuela con los educadores ha sido muy cerca-



prozesu bat ahalbidetu du azkenean. Hau gertatu denean, eskolaren eta hezitzaileen arteko harremana oso estua izan da. Lan hau guztia posible egin dutenak hiru hilean behin, eta beharrezko irizten diogun guztietan, hezitzaileekin eta gizarte langileekin egiten ditugun koordinazio bilerak izan dira. Bilera horietan denok azaltzen ditugu gure kezkak, eta konponbideak elkarrekin bilatzen ditugu, elkarren osagarri gara alegia, esparru guztietara, familia, eskola eta kalera iritsi ahal izatearren.

Gure ustez koordinazio hau, beharra gertatutako une askotan, laguntza handia izan da. Hala eta guztiz ere, beti ez gara gauza guztietara iristen, eta zenbaitetan zapuzturik bezala geratzen zara, gauza askorik egiterik ez duzula ikusten duzunean; izan ere, itxarote eta ikuste hutsa gogorra da. Kaleko programa ez da derrigorrean joan beharreko zerbait, eta beti ez dugu gazteek programan parte har dezaten lortzen. Hezitzaileek adingabearekin halako hartu-eman bat lotzea lortzen ez dutenean, laguntza handirik ezin digutela eman ikusten dugu.

Beste kasu askotan, berriz, gure ikasleekin lan egin dutenean aurrerapauso ikaragarriak antzeman ditugu, eta horri oso balio handia ematen diogu. Gaur egun, izandako koordinazioa eta talde lana (denona) azpimarratuko nituzke, eta familiek eta gazteek koordinazio horren berri badutela, eta gazteez eta gazteen kontuez kezkatu dagoen eta arduratzen den jende gehiago dagoela. Garrantzitsua da, nire iritziz, lan hau modu gero eta normalizatuagoan egitea.

Era berean, nire ustez hasierako ilusioa haziz joan da urtez urte, gero eta hobeto egokituz elementu


na. Todo este trabajo ha sido posible gracias a las reuniones de coordinación que llevamos a cabo, cada tres meses con los educadores y las trabajadoras sociales y cada vez que valoramos que es necesario juntarnos. En ellas ponemos en común nuestras preocupaciones y buscamos salidas en conjunto, nos complementamos para poder llegar a todos los ámbitos: familia, escuela y calle.


Creemos que esta coordinación en muchos momentos de necesidad ha sido un apoyo. Pero no siempre se llega a todo y hay veces que te queda una pequeña frustración pues ves que no puedes hacer gran cosa, esperar y contemplar es duro. El programa de calle no es algo que requiera asistencia obligatoria y no siempre conseguimos que los jóvenes participen en el programa. Cuando los educadores no consiguen establecer una relación con el menor sentimos que no nos pueden apoyar mucho.

En otros muchos casos donde han trabajado con alumnos nuestros, se han dado grandes adelantos y eso lo valoramos muy positivamente. Hoy sobre todo subrayaría la coordinación y el trabajo en equipo que ha habido (por parte de todos!), que las familias y los jóvenes saben de esta coordinación y que hay más gente que se preocupa y se ocupa de los jóvenes. Creo que es importante que este trabajo se vaya realizando de una forma cada vez más normalizada.

Del mismo modo, pienso que la ilusión con la que se comenzó ha ido creciendo años tras año, encajando cada vez mejor y fortaleciéndose demostrando que aunque todavía hay camino por recorrer, está en la buena senda.

Hoy sobre todo subrayaríamos la coordinación y el trabajo en equipo que ha habido (por parte de todos), que las familias y los jóvenes saben de esta coordinación y que hay más gente que se preocupa por ellos.





guztiak, eta gero eta indartsuago agertuz gainera, eta halaz, oraindik egin beharreko bidea badagoe-larik, badakigu arrasto egokitik goazela.

ETXEZAIN EGINKIZUNETIKO IKUSPEGIA

Dagoeneko hamar urte egin ditut Andoainen Gizarte Zerbitzuen Zentroko etxezain lanetan. Kaleko hezitzaileen bulegotik 10 metrora egiten dut lan, eta urte hauetan zehar programa horretan egin duten lanaren lekuko zuzena izan naiz. Neska-mutil, aita-ama askori zabaldu diet atea, eta pertsona askoren prozesua eta, oro har, programa bera ikusi ahal izan dut, gaur egun arte.

Oraindik gogoan dut lehen kale hezitzailea aurkeztu zidatenean harriturik geratu nintzela. Lan mota hori zegoenik ere entzun gabea nintzen. Ikusten nuen kalera irteten zela, gazteekin hartu-emanu zuela, pixkanaka-pixkanaka gazte horietako batzuk zentro-ra inguratzen zirela, hezitzailearen bulegora, lokal batera joaten zirela eta etxeko lanak egiteko bertan geratzen zirela, ekintzak eta irteerak egiten zituztela..., baina artean ez nuen oso ondo ulertzen lan hura zertan zen.

Nire sarrerako mahaitik, gauzei beha, konturatu naiz kaleko programa ez dela soilik ekintzak antolatzekeo espazio bat, baizik eta bertan hezitzaileek eta gazteek harreman bat eraiki dutela, erreferentzia espazio bat, hain zuzen bertan egoteko; eta halaz, bertan oso lotura sendoak sortu dira.

Del mismo modo, pensamos que la ilusión con la que se comenzó ha ido creciendo años tras año, encajando cada vez mejor y fortaleciéndose demostrando que aunque todavía hay camino por recorrer, está en la buena senda.


LA VISIÓN DESDE EL PUESTO DE CONSERJE

Llevo diez años trabajando en Andoain como conserje en el Centro de Servicios Sociales. Trabajo a 10 metros del despacho de los educadores de calle y a lo largo de estos años he sido testigo del trabajo que se ha hecho en ese programa. He abierto la puerta a muchos chicos y chicas, padres y madres y he podido ver el proceso de muchas personas y del programa en general hasta el día de hoy.

Recuerdo que cuando me presentaron al primer educador de calle, me sorprendió. Nunca había oído hablar de este trabajo. Veía que éste salía a la calle, se relacionaba con los jóvenes, que poco a poco se acercaban algunos de ellos al centro, a su despacho, se iban a un local y se quedaban a hacer las tareas, hacían actividades, salidas,... pero no terminaba de entender muy bien en qué consistía su trabajo.

Desde mi mostrador, observando, me he dado cuenta que el programa de calle no es solo un espacio donde se organizan actividades, sino que educadores y jóvenes han construido una relación, un espacio de referencia donde poder estar y donde se han creado fuertes lazos.

Por aquí han pasado muchas cuadrillas, los jóvenes han ido creciendo y con el paso del tiempo vuelven a



Hemendik koadrila asko igaro dira, gazteak hazten joan dira eta denbora igaro ahala itzuli ere egiten dira, bizimoduak nola tratatzen dituen eta gertatu diren aldaketak kontatzera, hala nola lehenbiziko lanak, bikoteak, proiektuak, are ezkontza edota aita-ama izango direla iragartzera ere. Badirudi bere iza-tearen zati desberdin bat itzultzera datozela, zati hel-duago bat, harro sentitzen baitira horretaz.

Nire iritziz, programa hauek gazteak entretenitzeko espazioa baino zerbait gehiago dira, aurrez aurreko harremana oso garrantzitsua den gune bat, pertsona ezagutzeko aukera ematen digun bat, eta gazteak diren bezalakoak agertzen diren bat, mozturrik gabe, barrena erabat biluzturik. Hitz egitera etortzen dira, norbaiti kontatu beharrekoa atera eta lasaitzera, egotera. Gutxienezkoa da, berriz, zer egingo duten.

Urte hauetan zehar korridore hauetan ikusi dudak gazteen sartu-irten etengabe horretan, hobeto ezagutzeko aukera izan dut, eta zenbait ere geratu izan da nirekin, aukera izan dut gazteon zailtasunak, haserreak, aurrerapausoak, pozak,... hurbildik ikusteko eta sentitzeko, eta hezitzaileekin landutako bere jardueretako batzuen partaide ere egin naute.

Niretzat pribilegioa izan da gazte belaunaldi hauek, bar-ruan zerematen gauzarik onena berreskuratzen jakin dutelarik eta gero, gainera, besteekin partekatzea eto-ri direla, nola hazi diren berta-bertatik ikusi ahal izatea. Orain, gai naiz lan hori ulertzeko.

Mertxe Belamendia


contar cómo les va la vida, los cambios que hay en ella; sus primeros trabajos, sus parejas, sus proyectos, incluso a anunciar su boda o que van a ser padres. Es como ver que vienen a devolver una parte de ellos diferente, más madura y de la que se sienten orgullosos.

Creo que estos programas son algo más que un espacio para entretener a jóvenes, pienso que es un espacio donde el tú a tú es muy importante, donde se llega a conocer a la persona, donde los jóvenes se muestran de forma auténtica, se quitan la coraza, se desnudan totalmente. Vienen a hablar, a desahogarse, a contar, a estar. Lo de menos es qué hacer.

En ese entrar y salir de jóvenes por estos pasillos a lo largo de estos años he podido conocerles mejor, algunos se han parado también a estar conmigo, he podido ver y vivir de cerca sus dificultades, sus mos-queos, sus avances, sus alegrías,... incluso me han hecho partícipe de algunas de sus actividades con los educadores.

He tenido el privilegio de ver desde una distancia muy cercana cómo han ido creciendo generaciones de jóvenes que han sabido rescatar lo mejor de ellos y volver para compartirlo. Ahora soy capaz de enten-der este trabajo.

Mertxe Belamendia



Praktiketan aritutako gizonezko hezitzaile bat

1997an izan nuen Andoaingo kaleko heziketa programaren bidezko gizarte eta hezkuntza alorreko esku-hartzera hurbiltzeko lehenbiziko aukera. Gizarte hezkuntzako bigarren maila egiten ari nintzen, eta azkenean banuen modua unibertsitateko prestakuntzak eman teoria praktikara eramateko; amateko practicum desiratuaren unea zen. Gogoan dut bi aukera zeudela egiteko. Zeure kasa mugitu zintezke, edo bestela unibertsitatea arduratzen zen praktika horiek egin ahal izateko espazio bat eskaintzeaz.

Bizitzan kasualitateak pila izaten dira, eta halako batean, zergatik jakin gabe, pertsona gisa, profesional gisa haztea eskaintzen dizuten tokietan jartzen zaituzte, orain dagoeneko garrantzirik ez duten beste gauza asko eskaintzearekin batera. Baina benetan garrantzitsua da nire bizitzako prozesu hartan zorioneko izan nintzela, parean fortunatu zitzaidan-eta toki egokian izateko aukera, behar nuen tokian alegia, nire bizitzak pertsona gisa zein geroago profesional gisa bira bat eman zezan.

Lagun baten bidez, ikaskide bainuen eta asko zor baitiot, gure praktikak Andoaingo programan eta Kale Hezitzailearekin egiteko aukera sortu zitzaigun bioi; oker ez banago, hezitzaileak dagoeneko 3 urte zeramatzan proiektu horretan. Abenturaren hasiera zen.

Ikasi nuenak ez zuen inolako zerikusirik estudiatzen

Un educador en prácticas

Fue en año 1997 cuando tuve la primera posibilidad de acercarme o aproximarme a la intervención socioeducativa a través del programa de Educación de medio abierto de Andoain. Estaba cursando segundo de educación social y por fin llegaba el momento de intentar trasladar la teoría de la formación universitaria a la práctica; llegaba el soñado y ansiado practicum. Recuerdo que había dos posibilidades para realizarlas. Podías buscártelas por tu cuenta o por otro lado la universidad se encargaba de ofrecerte un espacio donde poder realizarlas.

La vida son un cúmulo de casualidades que de repente sin saber por qué te ponen en lugares que te ofrecen crecer como persona, como profesional y muchas cosas más que ahora ya no importan. Lo que sí es importante es que en aquel proceso de mi vida tuve la fortuna de estar en el lugar adecuado, en el sitio correcto para que mi vida, tanto en lo personal como en lo que luego sería lo profesional, diese un giro.

Por medio de un amigo, compañero de clase, al cual le debo bastante, nos surge a ambos la posibilidad de realizar nuestras practicas en el programa de Andoain con el educador de calle que si no recuerdo mal llevaba trabajando 3 años en este proyecto. ¡ Comienza la aventura!

Lo que aprendí no tiene nada que ver con lo que estaba estudiando: ¡primera bofetada! Nuestra fun-



ari nintzenarekin: lehenbiziko zaplaztekoa! Gure eginkizuna, praktiketan ari ginen ikasleak izaki, lana nola egiten zen ikustea zen, teoriar behintzat, zer egiten zuten, nola egiten zuten, zertarako, zergatik, norekin... Zorionez, lehen unetik beretik aukera izan zuen gauzei ekiteko, hau da, ikusi eta ahal nuen guztia, uzten zidatena eta gehiago alegia, neureganatzeko; eta honek bazuen berekin halako erantzukizun bat. Kalean zehar ibiltzen ginen, koardilekin hitz egiten genuen, entzun egiten genien. Lokal bat ere bageneukan, eta han gazteek eskolako lanak egiten zituzten, eta jolas, eguneko ekintzak, eta kanpora ere joaten ginen haiekin. Gazteen berri bagenuen, eta gazteek ere bazuten gure berri. Gazteak kontuan hartzen genituen, eta baita haiekin ere. Ordu asko ematen genituen elkarrekin, funtsezkoa zen-eta kaleko hezitzaile gisa genuen eginkizunean.



Esperientzia asko aipa nitzake, eta banakako proiektuak, taldekakoak, eskolekiko koordinazioa, gizarte langileekin genuen giro ona, gazteek proposatzen zitzairen guztian parte hartzeko erakusten zuten inplikazioa, gurasoekiko tratua eta hartu-emanak, zere-errenda luze-luzea osatuz horrela.


Hezitzaile eta pertsona gisako ikuspegitik, gauzarik azpimarragarriena sentimendu, sentsazio, beldur, larritasun eta pizgarrien bizitasuna izan zen, horrelako guztiak agertzen baitira lan honen hartzaile ditugun pertsonekin hartu-emanetan hasten, enpatia bilatzen hasten garenean. Barne-prozesu bat izan zen, eta horrek bultzaturik deskubritu egin nituen nire barnean neramatzen eta daramatzadan tresnak, Kale Hezitzaileak egiten zuena bezain lan bizia egiteko nuen gaitasuna. Izan ere, lehen unetik beretik eskura neukan lanabes edo tresna bakarra **ni neu** nintzen. Gazteekin egunero-egunero egoteak, haiek

ción como alumnos en prácticas era en teoría la de observar como se trabajaba, qué es lo que se hacía, cómo se hacía, para qué, porqué, con quién... Afortunadamente desde el primer momento tuve la posibilidad de pasar a la acción, esto es observar y absorber todo lo que se podía, lo que te dejaban y más con la responsabilidad que esto conllevaba. Realizábamos pateos de calle, charlábamos con las cuadrillas, les escuchábamos. Teníamos un local donde los jóvenes realizaban sus tareas escolares y donde jugaban, hacíamos actividades de día, nos íbamos fuera con ellos. Sabíamos de ellos y ellos sabían de nosotros. Contábamos con ellos y ellos contaban con nosotros. Pasábamos muchas horas juntos, algo clave en la tarea que nos compete como educadores de calle.

Podría enumerar muchísimas experiencias, proyectos individuales, proyectos grupales, coordinación con los colegios, el buen rollo con las trabajadoras sociales, la implicación de los jóvenes para participar en todo lo que se les proponía etc., el trato y relación con padres y madres y un sin fin de etcéteras.

Desde el punto de vista como educador y como persona lo más reseñable fue la intensidad de sentimientos, sensaciones, miedos, angustias y estímulos, que afloran a la hora de tomar contacto, relación y empatizar con las personas con las que desarrollamos esta tarea. Fue un proceso interno que me obligó a descubrir cuáles eran y son las herramientas que llevo conmigo mismo, mis potencialidades para poder realizar un trabajo tan intenso como el que el educador de calle realizaba. Hablo de que desde el primer minuto la única herramienta que estaba al alcance de mi mano era simplemente **mi persona**. El constante día a día con los jóvenes, conocerles, escucharles, apoyarles, ponerles límites, seducirles...





ezagutzeak, entzuteak, laguntzeak, mugak jarri eta limurtzeak... horiek guztiek erregistratuta ez neuzkan alderdi pertsonal batzuk aurkitzera eraman ninduten. Baina beste gauza bat ere egin behar izaten nuen, praktketan ari zen Jon hezitzailea eta Jon pertsona bereizi. Laburbilduz, esperientzia pertsonal bat izan zen, eta harixe eskaini nion neukan guztia, eta harexengandik jaso nuen, berriz, zegoen guztia.

Alderdi garrantzitsuenetako bat, nik uste, herriak programa honekin erakutsi inplikazioa izan zen. Gazteek, hezitzaileek, gizarte laguntzaileek, gurasoek, zentroko etxezainak, ikastetxeek, guzti-guztiek eman zidaten emateko aukera, baina baita berengandik gauza oso garrantzitsu bat jasotzekoa ere, pertsona gisako ezagutze eta hazte bat alegia, nire etorkizun profesionalera begira hain modu goiztiarrean iristea espero ez nuen halako segurtasun bat. Hau da, nire prestakuntza-lanbide aukera sendotu zuen elementua izan zen, zeren eta une hartan unibertsitateko prestakuntzak ez baininduen asetzen. Ez dakit zer gertatuko zen programa hau ezagutzerik eta programan nire burua ezagutzera ematerik izan ez banu; ez da, ordea, oso garrantzitsua. Izan zena izan zen. Gaur egun, dagoeneko bost urte baino gehiago daramat kaleko hezitzaile gisako eginkizun profesionallean.

Eta uste dut gazteei zuzendutako proiektu, udal erronka eta ekimen gutxiren eskura dagoen zerbait lortu dela: proiektu honen kultura bat sortzea lortu da, zeren eta Andoaingo kaleko programa herriaren zati baita, jendeak ezagutzen baitu, eta bere egin gainera. Zerbaitegatik izango da. Beraz, geratzen zaidan bakarra une hartan ondoan izan nituen pertsona guztiek eman zidaten aukera eskertzea da. Ez baitago izenik zertan eman, ezta? Den-denak.

Jon Diez Esteibar

me llevaron a descubrir aspectos personales que no los tenía registrados. También esto me obligaba a separar al Jon educador en prácticas y al Jon persona. En resumidas cuentas una experiencia personal en la que di todo lo que tenía y se me dio todo lo que se tenía.

Uno de los aspectos más importantes creo que fue la implicación del pueblo con este programa. Jóvenes, educadores, Asistentes Sociales, padres y madres, la conserje del centro, colegios, todos me dieron la posibilidad de dar pero también de recibir de ellos algo tan importante como un conocimiento y crecimiento personal, una seguridad en cuanto a mi futuro profesional que nunca me hubiese imaginado que llegaría tan pronto. Digamos que fue la guinda que consolidaba mi opción formativo-profesional ya que en aquel momento la formación universitaria no colmaba todas mis expectativas. No sé lo que hubiera pasado si no hubiese tenido la posibilidad de poder conocer y darme a conocer en este programa, proyecto o como se quiera llamar, pero tampoco es importante. Fue lo que fue. Hoy es el día que llevo más de un lustro trabajando profesionalmente como educador de calle

Pienso que se ha conseguido algo que está al alcance de pocos proyectos, apuestas municipales e iniciativas de cara a los jóvenes; se ha conseguido crear cultura de este proyecto ya que el programa de medio abierto de Andoaín forma parte del pueblo, la gente lo conoce y lo ha integrado; por algo será. Por lo tanto no me queda otra cosa que agradecer la oportunidad que se me brindó por parte de todas las personas que en aquel momento estuvieron a mi lado. No hace falta dar nombres ¿verdad? Todos y todas.

Jon Diez Esteibar

Praktiketan aritutako emakumezko hezitzaile bat

“Diotenez, gutxien espero duzunean eta gutxien uste duzunean bada norbait lehen aldiz begirutzen dizuna, lehen aldiz musu ematen dizuna, lehen aldiz irribarre egiten dizuna. Kontua da toki egokian izatea, une egokian, zure bizitzak bira bat eman eta bide bat aukera dezazun.”

Eta horrela has naiteke kontatzen nola aukeratu nuen nire bidea, praktika hauek nire etorkizunean izango zuten eraginaren jabe ez nintzela.

Nire practicum II-ren esparrua aukeratzeko zalantzez lepo, lehenak ez zituen eta nire igurikapenak bete, lagun eta ikaskide baten proposamen bat jaso nuen, praktikak Andoainean egiteko; ikaskide honi bere neska lagun batek proposatua zion. Interesa piztu zitzaidan, galdetu eta, lerro nagusietan jaso nuena Kaleko Heziketako programan parte hartzeko aukera zela ikusi nuen.

Nahikoa ondo ematen zuen “inguru ireki” kontu horrek eta, zergatik ez bada?

Eguna iritsi eta hantxe agertu ginen, parean izango genuena zer zen ondo ez genekiela, abantailatxo batez ordea, urduritasuna eta berriaren zorabio hori elkarrekin hobeto eramaten baitira, partekatua izateagatik.

Atzera begiraturik, eta oroitzapenari astindu handiegirik eman beharrik gabe, sentsazio eta sentimendu pila bat datorkit gogora. Oso urte bizia izan zen, une onak eta ez hain onak izan nituen, eta zailak,

Una educadora en prácticas

“Dicen que el día menos esperado y en el momento menos pensado, hay quien te mira por primera vez, te besa por primera vez, te sonríe por primera vez. Se debe tratar de estar en el lugar preciso, en el momento preciso, para que tu vida de un giro y escojas un camino u otro.”



Y es así como puedo empezar a contaros de que manera escogí yo mi camino, sin ser consciente de lo que estas prácticas me depararían en mi futuro.



Con bastante indecisión para elegir el ámbito de mi practicum II, pues el primero no había cubierto mis expectativas, recibo una propuesta de un amigo y compañero de clase para realizar las prácticas en el municipio de Andoain, ya que a este a su vez se lo había propuesto otra amiga. Me intereso, pregunto y lo que llevo a recoger a grandes rasgos, es la oportunidad de participar en el programa de Educación en Medio Abierto.

Sonaba bastante bien eso de “medio abierto” así que dijimos: ¿porqué no?

Llega el día y allí nos presentamos sin saber bien a que nos enfrentábamos, pero con la ventaja de que los nervios y el vértigo se llevan mejor juntos, ya que es algo compartido.

Volviendo la vista atrás y sin la necesidad de hacer mucho ejercicio de memoria, un cúmulo de sensaciones y sentimientos vienen a mí. Fue un año muy intenso, donde pasé momentos buenos y no tan





barrea eragin zidatenak, are negar uneak ere. Toki berri batera iritsi, jende berriarekin, eta zuk gogo handia duzu ikasteko eta estudiantzen ari zarena praktikaren bidez kontrastatzeko, zeren praktikaz ordea? Hezitzaileek kontatzen dizute nola egiten duten lan, bere intentzio onaz zalantzarik gabe, baina zuri, hasiera batean, ezin bitxiago egiten zaizu dena; gauzak behatu beharra, kalean zehar ibili, talde pedagogia intentsiboko proiektuak, banakako pedagogia intentsiboko proiektuak, eta abar eta abar. Eguneroko lana da kokatzen zaituena, konfiantza handia jartzen dute zuegan, aukera ematen dizute programetan parte hartzeko, eta hementxe agertzen dira zure zalantza, zure ahulune eta indargune guztiak. Ondo ari ote naiz... eta hanka sartzen badut?

Pitinka-pitinka ikusten duzu pausotxo batzuk egin dituzula, eta beti duzu proiektu hau aurrera daramaten profesionalen babesa; gainera, zaindu egiten zaituzte, eta mimatu ere bai. Gazte asko ezagutu eta hartu-emanetan sartzen zara, lan egiten duzu horiekin egoera pila batean, eta bide horretan batzuetan tresna batzuk erabili behar dituzu –horrelakorik zeneukanik ere ez zenuen jakingo batzuetan-, eta beste batzuetan baliabide berriak jorratu behar.

Egia da, noski, horrelako proiektu batean barrenean duzun onena ematen duzula, eta gauzak dakizun modurik onenean egiten dituzula, gogoz beterik batzuetan, gogogabeturik besteetan. Elkarrekiko gauza bat da, zuk eman egiten duzu, eta hark ere ematen dizu. Nire iritziz, ekarpenik garrantzitsuena pertsona bera da, bere bertute eta akats guztiekin. Gazteak, hezitzaileak, gurasoak, udal eragileak, komunitate eragileak... eta Andoaingo proiektuan sinetsi eta horren alde egin duten pertsona guztiak izan dira lanean urte pila bat eman ostean proiektua finkatzea lortu dutenak.

buenos, difíciles, donde me reí e incluso hasta lloré. Llegas a un sitio nuevo, con gente nueva y tu con muchas ganas de aprender y contrastar lo que estas estudiando con lo que realmente es ponerlo en práctica, pero ¿poner en prácticaqué?.

Los educadores te cuentan la manera que tienen ellos de trabajar, con toda su buena intención eso sí, pero que a ti en un principio te suena a chino; observación, pateos en la calle, proyectos de pedagogía intensiva grupal, proyectos de pedagogía intensiva individual...y un largo etcétera. Es el día a día el que te hace centrarte más, depositan en ti mucha confianza, te dan la oportunidad de participar en programas, y es aquí donde entran en juego todas las dudas, tus debilidades y fortalezas. Lo estaré haciendo bien... y si meto la pata?.

Poco a poco vas viendo que das pequeños pasos, siempre con el respaldo y muy cuidada y mimada por los profesionales que llevan adelante este proyecto. Te relacionas y conoces a muchos jóvenes, trabajas con ellos en un sin fin de situaciones en las que unos días te sirven unas herramientas, que ni sabías que las tenías, y otros tienes que probar otras nuevas.

Bien es cierto que en un proyecto de estas características, se aporta lo mejor que uno tiene y lo mejor que sabe hacer las cosas, unas veces con muchas ganas y otras con muchas menos. Es algo recíproco, a la vez que tú aportas, él también te aporta. Creo que la aportación más importante es la propia persona con sus virtudes y con sus fallos. Jóvenes, educadores, padres, madres, agentes municipales, agentes comunitarios.... y todas aquellas personas que han creído y apostado por el proyecto de Andoain, han sido las que tras largos años de trabajo han conseguido afianzar el proyecto.

Nik Andoainen egindako ibilbideko gauzarik garrantzitsuena, dena den, han ezagutu nuen, nire nortasunaren alderdi batean arrastoa utzi duten esperientzietan une askotan kide izan nuen bakoitzaren zatitxo bat da.



Ez dut ahantziko nire etorkizuneko lanerako eman zidan aukera sorta ere, etorkizun hori espero baino lehenago gauzatzea ekarri baitzidan. Eta, zer esanik ez, asko ikasi ahal izan nuen, ez soilik edukien arloan, baizik eta baita bizipenenean ere, lagundu egin zidaten, eta oraindik ere laguntzen didate eta, profesional gisa prestatzen eta heldutasunera heltzen. Hori guztia dela eta, bihotz-bihotzeko esker-rona.

Leider Gantxegi.

Contaros que lo mas importante que me llevo de mi paso por Andoain, es un trocito de todas y cada una de las personas que allí conocí, con las que en muchos momentos viví experiencias que han marcado parte de mi personalidad.

Sin olvidar todas las posibilidades que me brindó para mi futuro laboral, llegando a concretarse éste antes de lo esperado. Y para qué decir todos los conocimientos que pude adquirir, no solo en relación a contenidos, sino en vivencias que me ayudaron y me siguen ayudando, a formarme y madurar como profesional. Por todo ello me siento muy agradecida.

Leider Gantxegi.





Gazte Lokala

Kale Hezitzaileak? Zer ote da hori? Zein dira ordea? Non? Hemen, Andoainen? Herri honetan ba al da horrelakorik?...

Eta eskerrak zerbait badagoen, ezen bestela auskalo non egongo ginen haiek gabe.

Hasierak latzak dira beti, gureak ere horrelakoak izan ziren; topikoa ote? Ez bada; bene-benetako egia da.

Hasieran denari heldu behar diozu, heltzen uzten badizute behintzat, eta gure kasuan zorteko izan ginen haien laguntza edukitzeagatik.

Norabidea ikusten ez genuenean, galduta eta, azken batean, ezjakin huts agertu ginenean... denak konponbidea duela ikasi genuen, mila modu daudela gauza bera egiteko, eta guztiak ondo egon daitezkeela; eta ondo egindako lanak eta ahaleginak merezi duela.

Horra beste topiko bat: poz partekatu bat poz bikoitza da; eta pena partekatua, berriz, pena erdia.

Koadrilekin eta, bereziki, gaztetxoekin lan egiten denean, **talde lana** beharrezkoa da, eta atsegina bide batez. Zuen lanerako filosofiaz eta planteamenduaz itzalean argi egitea lortzen duzue (nahiz ilunaldiak etengabe gerta daitezkeen).

Eskerrik asko.

Andoaingo Gazte Lokaleko dinamizatzaileak

El gazte lokala

¿Educadores de Calle? ¿De qué va eso? ¿Pero quienes son? ¿Dónde? ¿Aquí en Andoain? ¿Pero en este pueblo hay algo de eso?...

Y menos mal que hay algo porque no sabemos qué hubiera sido de nosotros sin ellos.

Los comienzos siempre son duros, los nuestros también lo fueron; ¿suena a tópico? Pues no; certifiquemos que es una verdad como un templo.

Al comienzo necesitas agarrarte a todo, si es que te dejan agarrarte, y en nuestro caso tuvimos mucha suerte en contar con su apoyo.

Cuando nos sentimos desorientados, perdidos y en definitiva como unos verdaderos pardillos... aprendimos que todo tiene una solución, que hay mil formas posibles de hacer lo mismo y todas pueden resultar bien; que el trabajo bien hecho y el esfuerzo siempre merece la pena.

Y ahí va a otro tópico: una alegría compartida se convierte en doble alegría; y una pena compartida en media pena.

Cuando se trabaja con Las Cuadrillas y más concretamente con La Chavalería, **el trabajo en conjunto** es necesario pero grato a la vez. Con vuestra filosofía y planteamiento de trabajo lográis sacar luces de las sombras (aunque los apagones puedan producirse continuamente).

Muchas gracias.

Dinamizadores del Gazte Lokala de Andoain

Gurasoak

Karrikako ama bat

Nerabezaroan zehar, aita edo ama oro beldur izaten da, kezkatuik, bere gauzarik baliotsuena, bere semea edo alaba alegia, non eta nola ote dabilen. Konturatzen zara seme-alabak hazten ari direla, eta gauzarik arriskutsuena berri guztia ezagutzeko eta probatzeko gogoia dela.

Urteko hilerik txarrenak uda partekoak izaten dira, horrelakoetan asperturik egoteak baitakarkie arriskurik handiena gazteei; izan ere, zerbaitetan eman beharreko 24 ordu dira. Hortxe aurki ditzakete deskubritzeko dauden gauzarik txarrenak.

Ni ama naiz, eta lasai sentitu izan naiz nire alabak zer egiten zuen banekielako; gainera, konturatu naiz aspertze hori ilusio bihurtzen zitzaioela, ezagutu dituen toki guztiengatik, egin dituen lagunengatik, praktikatu dituzten kirol guztiengatik, bizi izan dituzten esperientzia guztiengatik eta, gauzarik onena inolaz ere, geratu zaien oroitzapen ederragatik.

Nire iritziz, gazteentzat oso lagungarria izan da urte hauetan zehar egin duzuen. Carlos eta Pili, eskerrik asko.

Nerabe baten ama

Hezitzaileak nire seme-alaben bidez ezagutu nituen. Esaten zidaten eskolako lanak egiten zituztela, ikasketetan laguntzen zirela, irteerak eta txangoak egiten zituztela... Horregatik, eta ikastolaren bidez, bileretan ezagutu nituen.

Los padres y madres

Una madre de Karrika

En una etapa de la vida como es la adolescencia, todo padre o madre tiene miedo, preocupación de dónde o cómo puede andar su ser máspreciado, su hij@. Te das cuenta de que los hijos van creciendo y que lo más peligroso es la curiosidad de conocer y probar todo lo nuevo.



En especial los peores meses del año, son los de verano, donde el aburrimiento tiene el mayor peligro entre los jóvenes, ya que son 24 horas de pensar que hacer. Creo que ahí es donde tienden a poder conocer lo peor que puede haber por descubrir.


Como madre he tenido la tranquilidad de saber qué es lo que hacía mi hija, y por otro lado he notado que ese aburrimiento se convertía en ilusión; por todos los sitios que ha conocido, por los amigos que ha hecho, por todos los deportes que han practicado, por todas las experiencias que han vivido y lo mejor, por el recuerdo tan bonito que les ha quedado.

Creo que ha sido de gran ayuda para todos los jóvenes lo que habéis hecho durante todos estos años. Gracias Carlos y Pili.

La madre de un adolescente

Conocí a los educadores a través de mis hijos. Me contaban que hacían tareas, que les apoyaban en los estudios, hacían salidas, excursiones.... Por ello y a través de la ikastola les conocí en las reuniones.





Segurtasun handia eman didate, beti azaldu dizkiet nire zailtasun eta kezkek, eta laguntza eta konfiantza jaso dut, oparo gainera. Behar nuen unetan hortxe nituela sentitu izan dut.

Jasotako laguntzari duen balioa aitortzen badiogu, loteria egokitzen zaizunean bezala dela esan behar. Garrantzitsua baita zintzoa izatea, seme-alabekin ditugun kezkek edo zailtasunak ez ezkutatzea, beldurrak estaltzeak ez baitu, luzera begira, atarramentu onik izaten.

Zenbat eta laguntza gehiago izan, zenbat eta pertsona gehiago izan arduratzeko prest, gauza gehiago geratuko zaizkie.

AMA BATEN KONTAKIZUNA

Zaila da nire semeari eta niri neuri kaleko programako hezitzaileekin hainbeste urtetan zehar hartu-emanetan ibili izanak eskaini digun esperientzia labur azaltzea.

Pozgarria izan da haien laguntza izatea, norberarenaz aparteko beste iritzi batzuk izatea, zuretzat arazo gaindiezina den horri, irtenbiderik ikusten ez diozun horri beste ikuspegi batetik begiratzeko. Eta konturatzen zara garrantzitsuena adostasunak lortzea dela, amaren eta semearen artean niri dagokidanez, denontzako gauza onenen bila betiere.

Behar izan ditudan guztietan hortxe izan dira; ez dago diruz ordaintzerik. Laguntza handia sentitu dut, nire semearekin zeudela jakinda, eta niretzat laguntzaile zirela ikusirik. Erakutsi duten maitasun eta dedikazio horixe da egin didaten opari bikainena.

Mila esker.

Me han dado mucha seguridad, siempre he contado mis dificultades y preocupaciones a ellos y he recibido apoyo y mucha confianza. He sentido que en cualquier momento estaban ahí.

Si sabemos valorar el apoyo recibido es como cuando te toca la lotería. Pienso que es importante ser sincera y no ocultar las preocupaciones o las dificultades que se tienen con los hijos, a la larga no sirve tapar los miedos.

Cuantos más apoyos tengan y más personas les atiendan, siempre se les quedará algo.

RELATO DE UNA MADRE

Es difícil resumir en pocas palabras lo que para mi hijo y para mi ha supuesto la experiencia de habernos relacionado con los educadores del programa de calle durante tantos años.

Ha sido gratificante poder contar con el apoyo de ellos, poder contar con otras opiniones diferentes a las tuyas para ver de otra manera lo que para ti es un problema que te desborda y al que no encuentras solución. Te das cuenta de lo importante que es llegar a acuerdos, en mi caso entre madre e hijo, siempre buscando lo mejor para todos.

Siempre que los he necesitado han estado ahí, eso es impagable. He sentido gran apoyo al saber que ellos estaban acompañando a mi hijo y que yo tenía un apoyo en ellos. Ese cariño y dedicación que han demostrado es el regalo que me llevo.

Un millón de gracias.




Neska nerabe baten ama

Kaleko hezitzaileen zerbitzuarekin hartu-emanetan sartu nintzenean, ez nekien zehatz zein kontu zen. Gaur, berriz, urte asko igaro ostean, lasaitu egiten nau nire seme-alabak hezitzaileekin egotera eta hauek antolatzen dituzten jardueretan (txangoak, elkarbizitzak, afariak, ikasketetarako laguntza, etab.) parte hartzera joan ohi direla jakiteak; eta hau guztia pertsona batzuei zor diet, "hezitzaileei", sinesten baitute egiten duten horretan, eta atsegin zaie gainera. Lan bizitza eta famili bizitza batera eramatea gero eta kontu zailagoa zaigu, baina programa honetan izan dudan esperientziak gauzak arinago egin dizkit sarritan, lasaitasun puntu batez gainera, jakin bainekien nire seme-alabak ongi zeudela haien eskutan. Eta eman dizkidaten jarraibide eta laguntzarekin, errazagoa gertatu zait nireen eguneroko hezte lana. Nik ondorio garbi bat atera dut honetatik, hezitzaileen lana osagarria eta osatzailea dela gure seme-alaben pertsona gisako heziketara begira, aisialdiari, elkarbizitzako araei, begiruneari eta atxiki nahi dizkiegun funtsezko beste balore batzuei dagokienez.

La Madre de una adolescente


Cuando entré en contacto con el servicio de educadores de calle, no sabía exactamente de qué se trataba. Pero hoy, después de muchos años, me tranquiliza saber que mis hijos acuden con regularidad a estar con ellos a participar de sus actividades, (excursiones, convivencias, cenas, ayuda en los estudios, etc.), todo esto gracias a personas "los educadores" que creen en lo que hacen y les gusta. La conciliación entre la vida laboral y familiar, cada día se nos hace más difícil, mi experiencia con este programa me ha aliviado en muchos momentos, con la tranquilidad de saber que mis hijos están en buenas manos, con su orientación y apoyo me ha resultado más fácil el día a día de educar a los míos. Mi conclusión es que complementa y completa la formación como personas en cuanto a ocio, normas de convivencia, respeto y otros valores fundamentales en las que queremos educar a nuestros hijos.



Gazteak

Eli eta Cris

Gozaldiak, emozioak eta une ahaztezinak. Elkarrekiko begirunez jokatzeko ikasi dugun uneak, hainbat tokitako jendea ezagutu dugunak, eta une ahaztezinak eskaini dizkigutenak ezen, orain, ongi asko dakigu bizitza osoan zehar eramango ditugula gogoan, gure haurtzaroko gauza berezi gisa.



Mario

Gustura egotea, ekintzetan aritzea, ongi pasatzea. Konfiantza dago, eta lagundu egiten dit kaleak eskaintzen didanaz aparteko zerbaitetan pentsatzen. Laguntza bat dut, entzun egiten didate, eta beste jendearekin nagoenean ez bezala egon naiteke. Aske naiz!

Azahara

Sekula ez nuen pentsatu bizitzan zehar hainbeste zailtasun eta oztopo, bota edo gaineratik igaro beharreko hainbeste traba izango zenik. Une batzuetan pott egiten duzu, barrena jota zaude, eta hortik irten nahi duzun erabaki behar.

Eta ez dut ongiegi jakin izan, nik uste, norantz jo. Horregatik nire aldamenean egongo zen norbaiten laguntza behar izan dut.

Eskerrik asko begiak zabaltzen lagundu didazuen guztiei.

Los jóvenes

Eli y Cris

Buenos ratos, diversión, emociones y momentos inolvidables. Momentos en los cuales hemos aprendido a respetarnos, hemos conocido gente de diferentes sitios, en los cuales hemos tenido momentos inolvidables los cuales, hoy por hoy, sabemos que lo recordaremos como algo especial de nuestra infancia para nuestras vidas.

Mario

Estar a gusto, hacer actividades, pasarlo bien. Hay confianza y me ayuda a pensar en algo más de lo que me ofrece la calle. Tengo un apoyo, me siento escuchado y puedo estar de una forma diferente a cuando estoy con el resto de la gente. Me siento libre!

Azahara

Nunca imaginé que caminando por la vida hubiese tantas dificultades y obstáculos, muros que derribar o saltar. Hay momentos en los que te quedas estancada, hundida y toca decidir si quieres salir de ahí.

Creo que no he solido saber muy bien por dónde ir. Por eso he necesitado tanto la ayuda de alguien que estuviera a mi lado.

Quiero dar las gracias a todos los que me habéis ayudado a abrir los ojos.



Christian eta Maite

Lehen-lehenik, Carlos eta Pili pertsona bitxiak dira, arrazoia dena delarik une batean norbaitek entzun ditzan behar dutenen kutxa pertsonaletan azterka bezala dabilzan horietakoak.

Norbaitek behar izan dituenean, hortxe egon dira. Alabaina, magia kontua zen gu haien bulegora ezer gabe iritsi, historia zaharrak soinean, ez besterik, eta historia berriez beterik irtetea; zu konturatu gabe, berekiko zein geure buruekiko adiskidetasun eta konfiantzaz betetako mundu bat erakusten zizuten, eta bertan murgilarazten. Beti egon dira, une onetan zein txarretan. Hasiera batean hezitzaile hutsak ziren, orain, 10 urte igaro eta gero, lagunak baino gehiago dira.

Ikusi egin behar zenbat gauza egin ditugun elkarrekin: "Beldurraren etxea". "Gazte Astea". Arrantzara joateko, argazkiak egiteko... ongi pasatzeko irteerak; Euskal Herriko zein kanpoko jendea ezagutu...

Konfiantza eman digute, eta maitasuna eta errespetua (gure adinean ezinezkoak dira ia-ia), eskerrona, segurtasuna... . Askotxo gara eguneroko bizitzako funtsezko hainbat unetan begiak zabaldu dizkigutenak.

Jakinduria iturri agortezin baten antzekoak dira, eta hori ez baliatzea lelo jokatzeko litzateke. Askok uste izan ditugu beti.

Leire, Maria, Zuriñe eta Ederne

Garai onak izan ziren, ahaztezinak, esperientzia haiek bizi izan genituen guztiontzat. Nerabeak

Christian y Maite

En primer lugar, Carlos y Pili son dos de esas extrañas personas que merodean en los baúles personales de quienes por alguna razón en su día necesitaban ser oídos.

Siempre que se les ha necesitado han estado ahí. Sin embargo era cuestión de magia el que llegáramos sin nada a su despacho, sin nada más que las viejas historias, pero salíamos con otras nuevas: sin que te dieras cuenta te estaban enseñando e insertando en un mundo lleno de amistad y confianza, tanto con ellos como con nosotros mismos. Ellos siempre han estado en los buenos y en los malos momentos. En un principio no eran más que educadores, ahora, 10 años más tarde son más que amigos.



Hay que ver la de cosas que hemos hecho juntos: "La casa del terror". "La Gazte Astea". Salidas a pescar, fotografiar...a pasarlo bien; conociendo a más gente no sólo del País Vasco, sino también de fuera.



Nos han aportado confianza, cariño, respeto (que a nuestra edad es casi imposible), agradecimiento, seguridad... . Nos han abierto los ojos a unos cuantos en momentos claves de la vida cotidiana.

Son como un sin fin de sabiduría que derrocharlo sería más que un delito una estupidez. Siempre hemos creído en ellos.

Leire, Maria, Zuriñe y Ederne

Fueron buenos tiempos, inolvidables para todos los que vivimos aquellas experiencias, éramos adolescen-





ginen, eta ilusioa ez genuen sekula falta izan. Oso sorte ona izan zen denak hain elkaturik egotea, gure gorabeherak izan bagenituen ere, baina pertsonak onartzen eta diren bezalakoak baloratzen ikasi genuen.

Ekintza asko egin genituen, joko asko, baina guretzat dibertsioa zena, benetan, askoz gehiago zen, zeren eta taldean bizi izaten ikasi genuen, elkartzunez jokatzeko, gauza berriak esperimendatzeko, bizitzako hainbat alderdi aztertzen.

Esperientzia honek jende asko-asko ezagutzeko aukera eman zigun, eta gutako askok oraindik mantentzen ditugu adiskidetasun horiek; beste batzuk, berriz, urrunduz egin dira, baina beti izango dugu PARIS.

Txetxo

Egin dugun guztia zuen laguntzarekin lortu dugu, baina baita gure ahaleginekin ere.

Denbora honek nire etorkizunarekin zer egin nahi dudana deskubritzeko/argitzeko balio izan dit.

Gure adineko beste gazte batzuek aukerarik izan ez duten gauzak egiten ikasi dugu.

Nire ustez, hau guztia hezitzaileekin partekatu ez banu dena desberdina izango zen, eta kontrolatzen ikasi dut, jendea denaren arabera baloratzen, ez ordea daukanaren arabera.

Alex

Heldu naiz. Esaldi bat ondo gogoan dut: "ez besteri egin zuri egitea atsegin ez zaizunik". Zerbait egiten dudanean, besteari tokian jarri eta pentsatu egiten

tes y lo que nunca nos faltó fue ilusión.

Tuvimos la gran suerte de estar todos tan unidos, tuvimos nuestros más y nuestros menos, pero aprendimos a tolerar y a valorar a las personas tal y como son.

Hicimos muchas actividades, muchos juegos, pero lo que para nosotros era diversión, en realidad era mucho más que eso, puesto que aprendimos a vivir en grupo, a ser solidarios, a experimentar cosas nuevas, a examinar diversos aspectos de la vida.

Esta experiencia nos dio la oportunidad de conocer a muchísima gente, muchos de nosotros seguimos siendo amigos, otros en cambio se han ido distanciando pero siempre nos quedará PARÍS.

Txetxo

Todo lo que hemos hecho, lo hemos conseguido con vuestra ayuda pero también con nuestros esfuerzos.

Este tiempo me ha servido para descubrir/aclararme qué quiero hacer con mi futuro.

Hemos aprendido a hacer cosas que otros chavales de nuestra edad no han tenido la oportunidad.

Pienso que si no hubiese compartido todo esto con los educadores todo habría sido distinto y he aprendido a controlarme, a valorar a la gente por lo que es, no por lo que tiene.

Alex

He madurado. Me quedé con la frase: "no hagas a los demás lo que no te gusta que te hagan a ti". Cuando hago algo, me pongo en el lugar del otro y

dut, egin aurretik.

Kontzienteagoa naiz, pausoak gehiago neurtzen ditut lehen arruntak zirela iruditzen zitzaidan gauzak egiteko, eta orain hain arruntak ez direla konturatzten naiz.

Karrikako gazteak

Dibertsioa, adiskidetasuna, pozak, sentrazioak, kiroltasuna, ilusioa, gorantz egitea, elkarbizitza...

Nerabearoa bizitzako oso aldi konplexua da, eta norbera galduta bezala sentitzen da.

Erabakitzen eta geure buruagan konfiantza izaten ikasi dugu, berez agian, edo urte hauetan zehar egin ditugun proiektuen bidez akaso, horietan barnean generaman onena ateratu dugu eta.

Beste pertsona batzuen egoera geure eginez, gaur egun arazo askori egin diezaiokegu aurre, lehen gai izango ez ginen askori hain zuzen ere.

Eta eskertu egin behar diegu urte hauetan zehar izan duten pazientzia.

Eskerrik asko denagatik.

pienso antes de hacer.

Soy más consciente, me corto más en hacer las cosas que antes me parecían normales y ahora me doy cuenta de que no lo son tanto.

Los jóvenes de Karrika

Diversión, amistad, alegrías, sensaciones, deportividad, ilusión, superación, convivencia....



La adolescencia es una etapa de la vida muy compleja, en la que uno se encuentra desorientado.

Hemos aprendido a decidir y a confiar en nosotros mismos, quizá por la misma naturaleza o bien a través de los proyectos realizados durante todos estos años, en los cuales hemos sacado lo mejor de cada uno.

Poniéndonos en las situaciones de diferentes personas, hoy, podemos afrontar muchos problemas de los que antes, puede que no fuésemos capaces.

Agradecemos la paciencia que han tenido durante todos estos años.

Gracias por todo.



Beste hezitzaile baten ikuspegia

Uste dut badakidala zertan ari zareten.

Atsegin handiz jaso dut oroitzapen eta emozio bilduma honetan parte hartzeko aukera, Andoainen Programak dagoeneko egin duen 10 -edo 11?- urteko denbora honengatik zorionak ematea ere ahalbidetzen baitit.

Nire ibilbide profesionalak egunero-egunero hau bezalako errealitate asko ezagutzera eramaten nau. Errealitate horietako asko zuena bezain bereziak eta bikainak dira, eta benetan diot, horiek guztiek bizigarria zaizkit, eta hunkitu egiten nau horiek ikusteak, horietan laguntzeak, sendotzeak eta ekarpena egiteak.

Une egokia dugu orain honi buruz hitz egiteko. Hezitzaileok ez dugu aukera askorik izaten dagoeneko gertatu diren, utzi ditugun eta jalki diren gauza guztiei buruz era honetako hausnarketa bat egiteko. Eta lizentzia bat harturik, zuen izenean jardungo dut, lankide, garaikide, lagun eta adiskide gisa.

Bizkor igaro dira, ezta? Baina, egin dituzuen gauza guztietan pentsatzen hasten bagara, zuen ondotik igaro diren neska-mutil eta familia guztiak gogoan, eta aparteko kalitateaz arreta berezia eskaini diozuen pila izugarri handi horri erreparatzen badiogu, 10 urte luze izan direla konturatzen gara, eta gainera ez direla alferrik igaro.

Denbora faktorea erabakigarria da lanbide honetan, hamarkada bat nahikoa da, atzera begiratu eta lortu

El punto de vista de otro Educador

Creo saber de qué va lo vuestro.



Recojo con gran placer la posibilidad de participar en este compendio de recuerdos y de emociones que permiten que os felicitemos por los 10 años de desarrollo del Programa en Andoain, ¿o son 11?.

Mi trayectoria profesional me lleva a haber conocido y a conocer a diario muchas realidades como ésta y, muchas de ellas tan especiales y sobresalientes como la vuestra, reconozco que me estimula y emociona observarlas, acompañarlas, reforzarlas y contribuir a ellas.

Es un buen momento para hablar de ésta. No tenemos muchas oportunidades los Educadores y las Educadoras de reflexionar, en este tono, de todas las cosas que han pasado, que hemos dejado y que se han posado. Me permito aquí la licencia de hacerlo un poquito en vuestro nombre, como colega, coetáneo, compañero y amigo.

Han pasado rápido, ¿verdad?, pero, si nos paramos a pensar en todas las cosas que habéis hecho, en todos los chavales, chavalas y familias que han pasado cerca vuestro, y en los muchísimos en los que os habéis parado, y en la calidad en que lo habéis hecho, nos damos cuenta que han sido 10 largos años y que no han pasado en vano.

El factor tiempo es fundamental en este oficio, una década es más que suficiente para, mirando atrás, poder valorar los logros que habéis conseguido. El



duzuen baloratu ahal izateko. Prozesua, hezkuntza elementu gisa, ezinbestekoa eta beharrezkoa da, eta argi eta garbi dago denbora hori asmoz eta prestutasunez bete duzuela; era berean, harremanaren gozotasunez elikatu duzue hurbiltzera egin duzuen neska-mutilei laguntzeko uanean. Baina egia da beste era batera jokatzuz gero ez zenutela ia-ia ezer lortuko.

Andoain, orain arte, Carlos eta Piliren lurraldea ere izan da, kale, etxe, parke, ekipamendu eta abarrez betetako lurralde bat, eta 10 urte hauetan zehar, zuek bertatik igaro zaretelarik hobetu egin da; baina, batez ere, jendez betetako lurralde bat da, "saltsan" sartu zareten, "busti" zareten neska-mutilekin partekatua.

Ez naiz "entzundakoaz" ari, badut, nik uste, kanpotik begiratzeko gaitasuna, beno, egia esateko, burua kanpo samar eta bihotza nahikoa barruan sartuta, eta, denbora horren zati handi batean, zuen lana ezagutu ahal izan dut, zuen ilusio eta proiektuen berri izan dut eta, egia da, batzuetan baita zuen kezka eta zailtasunena ere. Lan egin duzuen neska-mutil horietako asko ezagutzeko zortea izan dut, eta lasai esan dezaket, eta badiot gainera, lanbide honetan eskarmentu handikoa bainaiz, harremanaren "miraria" aditu egin dela, aurrerapausoen "magia" haztatu ahal izan dela, eta egindako lanak sortutako gozamen eta gogobetetasuna arnas izan dugula.



Bakar-bakarrik profesional onek lortzen dute horrelakorik eta, zorionez, asko eta asko dira zuek bezala errealitateari ikuspegi posibilista batetik begiratzeko gai diren hezitzaileak, aldaketak eragiteko ahaleginetik eta pertsonenganako, neska-mutilenganako uste eta konfiantzatik beha, bista behar



proceso como elemento educativo es irremediable y necesario, y demostrado está, que habéis llenado ese tiempo de intención y de disposición, así mismo, lo habéis abonado con el mimo de la relación para acompañar y ayudar a los chavales y chavalas a los que os habéis acercado. Pero, es verdad, que de otra manera, no habríais conseguido casi nada.

Andoain ha sido hasta ahora, también, el territorio de Carlos y de Pili, un territorio lleno de calles, casas, parques, equipamientos, etc. que, en estos 10 años, a vuestro paso, ha mejorado y, sobre todo, un territorio lleno de gente, compartido con los chavales y chavalas con los que os habéis "metido en el lío", con los que os habéis "mojado", con los que os habéis "pringado".

No estoy hablando "de oídas", confío en mi capacidad de mirar desde fuera, bueno..., en realidad, la cabeza un poco fuera y el corazón bastante dentro, y, durante gran parte de este tiempo, he podido conocer vuestro trabajo, he podido saber de vuestras ilusiones y proyectos y, es verdad, a veces, de vuestras preocupaciones y dificultades. He tenido el placer de conocer a muchos de los chavales y chavalas con los que habéis trabajado y, puedo confirmar, y lo digo como "perro un poco viejo en el oficio", que el "milagro" de la relación se ha olido, la "magia" de los avances se ha palpado y el disfrute y satisfacción por la labor realizada se ha respirado.

Sólo los buenos profesionales lo consiguen y, afortunadamente hay muchos, muchos y muchas Educadoras que, como vosotros, son capaces de mirar la realidad desde una perspectiva posibilista, desde el esfuerzo por activar los cambios y desde la creencia y confianza en las personas, en los chavales y en las chavalas, enfocando al máximo la vista en aquellos a





adina behartuz gainera maizegi zaila den hazte prozesu horretan lagundu nahi diegunen kasuan; ezen hazkunde horretan bertan disfrutatu ahal izan dezaten saiatzen gara, ez soilik etorkizuneko aurrezpena izanik gogoan, baizik eta, batez ere, oraingo gozamen eta osotasuna.

Baina, ados egongo garela uste dut, hau guztia ez da doakoa izan, zeren eta lan honetan ia-ia erdibana mugitzen baitira, ematen duguna batetik eta jasotakoa bestetik. Halaz, garbi dago ezinezkoa izango zela historiako beste protagonisten, Andoaingo neska-mutilen eskuzabaltasunik gabe, "bere etxean sartzen" utzi dizuete eta, eta bere espazioak, bizitzak, desirak eta, sarritan, zailtasunak partekatzen, zuek proposatutakoa jaso dutelarik, berriz, ordaintan. Hauei guztiei ere, nire aintzatespena.

Badakit, halaber, zuen lankide Ana, Miren, Mila, Arantxa eta, noski, Mertxeren laguntzarik gabe, eta denboran zehar bere ekarpena egin duten beste hezitzaileen sostengurik gabe, dena askoz zailagoa izango zatekeela.

Beno, nire aldetik saiatu naiz ondo merezia duzuen opari honetan lerrotxo hauen bidez nire ekarpena egiten.

Eskerrik asko Carlos, eskerrik asko Pili. Eta ekin berriro, ildo berean barrena, asko baitugu oraindik egiteko. Ea beste 10!

Jesus Otaño Maiza

los que queremos acompañar en el, demasiadas veces, difícil proceso de crecer y de disfrutar cada uno de los momentos durante ese crecimiento, no pensando, sólo en el ahorro en el futuro, sino, sobre todo, en el disfrute y la plenitud del presente.

Pero, creo que, estaremos de acuerdo, que todo esto no ha sido gratis, pues, en este trabajo andamos casi a medias entre lo que damos y lo que recibimos, así pues, es claro que tampoco hubiera sido posible sin la generosidad de los otros protagonistas de la historia, los chavales y las chavalas de Andoain que han permitido que "entréis en sus casas", compartáis sus espacios, sus vidas, sus deseos y, muchas veces, sus dificultades y que han recogido, en su beneficio, lo que les habéis propuesto, vaya mi reconocimiento a todos ellos.

También sé que sin el apoyo de vuestras compañeras, Ana, Miren, Mila, Arantxa y, naturalmente, Mertxe, así como el de los otros Educadores que han colaborado a lo largo del tiempo, todo hubiera sido más difícil.

Bueno, he intentado contribuir, por mi parte, a ese regalo de vuelta que tenéis merecido con este pequeño apunte.

Gracias Carlos, Gracias Pili. Y "a currar" y, con la misma "onda", que tenemos mucho trabajo por delante. ¡A por otros 10!

Jesus Otaño Maiza

Andoain Hezi Zerb-entzat

Oraindik ere gogoan dut egun hura...

Ez genuen elkar ezagutzen... bagenuen ordea elkarren berri. Andoaingo kaleko programa, orduan horrela esaten genion, finkatzen, gorpuzten, hazten eta heldutasuna lortzen ari zen proiektu pilotu bat zen.

Gure aldetik, HEZI-ZERB Elkartearen proiektu bat zen, bizitza eta lanbide proiektu bat, itxuratzen eta gizarte eta kultur munduan bere tokia eskuratzen hasita zegoena, gaztea, baina gogo biziz betea.

Andoainean Carlos zegoen, gure Carlos, eta HEZI-ZERB-en Pilar, Ricardo, Angel eta ni neu geunden... eta gazteekin, guraso taldeekin, Hondarribiko gazte informazioko bulegoekin ... esku-hartzeko proiektuak. Bi bide desberdin ziren baina, bitxia bada ere, beren ideal, filosofia, laneko planteamendu, igurikapen eta abarretan oso antzekoak. Orain, gauzak tarte batez ikusirik, esan dezakegu patuak elkartzerara eraman zituela.

Horrelaxe izan zen, gogoan dut oraindik egun hura... hain gureak ditugun goiz hits horietako bat, eguneko menua ematen duen taberna bateko mahaia, eta bost pertsona solasean, ametsean, indarrak, esperientzia eta ilusioak bateratzeko aukera aurreikusten.

Askorik ez zitzaigun kostatu guztion eta gutako bakoitzaren proiektuen arteko halako sintonia bat bazegoela ikustea. Eta bat egite hori zentzuz beteriko bidea zela ulertzea. Izan ere, ordura arte banandurik egondako bide horiek, elkartuz gero, aberastu eta orduan sumatzerik ere ez genuen etorkizun bate-

Andoain para Hezi Zerb

Aún recuerdo aquel día...

No nos conocíamos...pero sabíamos ambos de nuestra existencia. El programa de Calle, como lo llamábamos entonces, de Andoain era un proyecto piloto que se consolidaba, que tomaba cuerpo, que crecía y maduraba.

Por nuestra parte la Asociación HEZI-ZERB era igualmente un proyecto, de vida y profesional, que iba tomando forma y empezaba a tener espacio en el mundo socio-cultural, joven pero con ganas.

En Andoain estaba Carlos, nuestro Carlos, en HEZI-ZERB estábamos Pilar, Ricardo, Angel y yo... y proyectos de intervención con jóvenes, con grupos de padres/madres, con la oficina de información juvenil de Hondarribia... Eran dos caminos distintos pero curiosamente muy próximos en sus ideales, su filosofía, sus planteamientos de trabajo... sus expectativas. Ahora en la distancia casi se puede decir que el destino quería que se conociesen.

Así fue, aún recuerdo aquel día... una mañana gris de esas tan de nuestras tierras, una mesa en una bar de menú del día y cinco personas dialogando, soñando, previendo las posibilidades de aunar fuerzas, experiencia e ilusiones.

No fue costoso notar que existía sintonía entre todos nosotros y los proyectos que cada uno representábamos. El comprender que unirnos era una apuesta con sentido. Que nuestros caminos hasta entonces separados si se juntaban nos enriquecían y nos pro-



rantz proiektatuko gintuzten, halako “pertenentzia”, “kohesio” batez.

Andoaingo kaleko proiektuak haztea, estilo eta gauzak egiteko modu bat lantzea ekarri zion HEZI-ZERBi. Kaleko proiektuari, berriz, HEZI-ZERBek nortasuna ematen zion, sendotasuna, eta esparru zabala parean.

Elkarrekiko bide honetan abian jarri, eta Andoaingo kaleko proiektuak zein HEZI-ZERBek berak iraultza bat izan zuten barnean: proiektu berriak, erakunde publikoen aintzatespena, beste erakunde eta elkarte batzuekiko (Gipuzkoa zein kanpoekiko) hartu-emanak zein horien errekonozimendua... Frantziako hezitzaile lankideekiko elkartrukeak ere abiatu ziren, eta Gipuzkoa eta Euskadin berritzaileak ziren gizarte-hezkuntzako apustuak implementatu. (Pedagogia intentsiboko proiektuak -banakako zein taldekakoak-, kirol, kultura edo enpleguaren bidez gauzatzekoak). Kaleko programa berriak agertu ziren, indarrak batu eta programen arteko zeharkako proiektuak garatu genituen. Elkartea bazkide berriez, proiektu berriez hazi zen, baliabide berriak sortzen eta biltzen zituen plataforma bat zen dagoeneko, eta gero, horiek guztiak kaleko programen, esku-hartze programen, haur eta gazteen lokalak kudeatzeko eskura jartzen zituen.



Dagoeneko hamar urte igaro dira oraindik gogoan dudan egun hartatik... kalea ez da jada gure zuzeneko lantokia, adinak ez baitigu uzten, baina bategite hura indartsu dago oraindik, gazte eta lanerako gogotsu, sortzen, pentsatzen, diseinatzen etengabe. Baliabideak sortzeko eta erakartzeko plataforma ere bada oraindik, eta lehen bezala HEZI-ZERBek kudeatzen dituen proiektu, programa eta zerbitzu guztien eskura jartzen ditu hurrena, “Andoaingo Gazteekin Gizarte eta Hezkuntza Alo-

yectaban hacia un futuro que ni siquiera entonces podíamos sospechar, nos hacia “sentirnos” pero nos posibilitaba algo grande: “pertenencia”, “cohesión”.

El proyecto de calle de Andoain supuso para HEZI-ZERB crecer, madurar un estilo y una forma de hacer. Para el proyecto de calle HEZI-ZERB le daba identidad, consistencia, recorrido.

Nos pusimos en marcha en este camino común y tanto el proyecto de calle de Andoain como HEZI-ZERB sufrieron una revolución: nuevos proyectos, reconocimiento de instituciones públicas, contacto y reconocimiento desde otras entidades y asociaciones (de Gipuzkoa y de fuera)... Se iniciaron los intercambios con compañeros educadores/as de Francia, se implementaron apuestas socioeducativas novedosas en Gipuzkoa, en Euskadi. (Proyectos de pedagogía intensiva: individual o grupal, a través del deporte, la cultura el empleo...) Aparecieron nuevos programas de calle, unimos fuerzas y desarrollamos proyectos transversales entre programas. La Asociación creció con nuevos socios/as, nuevos proyectos, se convirtió en una plataforma generadora y captadora de nuevos recursos que se ponían a disposición de los diferentes programas de calle, de intervención, de gestión de locales infantiles y juveniles.

Han pasado diez años desde aquel día que aún recuerdo... la calle ya no es nuestro lugar de trabajo directo, la edad no nos deja, pero aquella unión sigue fuerte, sigue joven y sigue trabajando, creando, pensando, diseñando... Sigue siendo una plataforma generadora y una fuente captadora de nuevos recursos... que siguen a disposición de todos los proyectos, programas, servicios que HEZI-ZERB gestiona y por supuesto del “Programa de Intervención



rreko Kaleko Esku-hartze Programa”ri ere eskaintzeaz batera.

Egun hartan erein genuen hazia zuhaitz sendo eta mardula dugu orain, historia askoren gerizpe eta babes. Arriskua hartzea merezi izan zuen, eskerrik asko.

Jaime Castillo Sein

Hezi Zerb-eko Bazkide Sortzailea

Socioeducativa en Medio Abierto con Jóvenes de Andoain”.

La semilla que sembramos aquel día hoy es un robusto árbol en el cual muchas historias se cobijan a su sombra y protección. Mereció la pena arriesgar, gracias.

Jaime Castillo Sein

Socio Fundador de Hezi Zerb

